Irakaskuntza Publikoa

steilas

EAE

2014ko abendua 105. zbk.

Aurkibidea

Horma	2
Editoriala	3
Aurrekontuak	4
Sindikalismoa	5
Oposaketak	6
Emakumeak	7
Haurdunaldia eta gehiago	8-9
Laboralak	10-11
Nafarroa	12
Mozala Legea	13
TTIP	14
Jendarte mugimendua	15
Han hemenka	16

steilas

TTIP, steilas Bruselan

Pasan los meses, y las propuestas y decisiones que nos van llegando desde el Gobierno Vasco y el departamento de educación no hacen más que ahondar en el deterioro de la escuela pública. Ahora es el turno de los presupuestos, en los que se repiten las viejas dinámicas de recortes en el sistema educativo en general, y en la red pública en particular.

A los recortes presupuestarios tenemos que sumar HEZIBERRI. Lo que comenzó siendo un camino de rosas para el departamento, en el que, supuestamente, todos los agentes empujaban en la misma dirección, se ha convertido en un camino a ninguna parte cuyos únicos compañeros de viaje son Kristau Eskola y las Ikastolas. steilas ya denunció desde el principio que ese plan del Gobierno Vasco resultaba inasumible. Nuestro sindicato no apoyará ninguna nueva Ley Educativa mientras el punto de partida no sea un sistema más equitativo basado en la igualdad de oportunidades.

Este curso es año de elecciones en educación, y nos jugamos mucho: las condiciones laborales de los trabajadores y la dignidad de la escuela pública. Y steilas lo tiene claro: Lo público como eje, lo público como objetivo.

Hilabeteak joan hilabeteak etorri,

okerrera goaz, kalitatezko hezkuntza sistema justu eta hobeago bateruntz aurrera pausuak eman beharrean, atzera egiten ari gara. Egoera jasan ezina bilakatzen ari da kalitatezko hezkuntza sistema publiko batean amesten dugunontzat. Kalitatezko eskola demokratiko, laiko, hezkidetzaile eta ekitatiboak kolpeak bata bestearen atzetik jasotzen ari da: Murrizketak, LOMCE, HEZIBERRI, publikotasun kontzeptua birdefinitu nahia...

HEZIBERRI nahikoa ez eta atzera pausu berri bat suposatzen duten aurrekontuak aurkeztu dizkigu Eusko Jaurlaritzak. Azken urteetako hezkuntzarako aurrekontuei jarraipena emanez, murrizketak ditugu mahai gainean aurten ere hezkuntzan oro har, eta eskola publikoan bereziki. Egonokortu egiten ditu aurreko legealdietan hasitako murrizketak eremu guztietan. Ez gara harritu, badakigu zeintzuk diren hezkuntza sail honen lan ildoak, joko arauak eta bidai lagunak. Eskola publikoa aurrekaririk gabeko erasoa jasaten ari da: murrizketak, eskola eredu demokratikoaren galera, ekitatearen deuseztatzea, erlijioaren indartzea, ghetizazioa, sareen finantziazio eredu berriak, eredu gerentzialen gailentzea...eta hau guztia HEZIBERRI (EAEn LOMCEren ezarpenak) eta aurrekontuen bitartez burutzen da.

HEZIBERRIk eragile guztien babesa zuela esanez ekin zion bideari Hezkuntza Sailak aurreko ikasturtean. Steilasek hasiera hasieratik salatu zuen ekimen hau, beste eragile askoren epeltasunari edo aldeko jarrerari aurre eginez. Aste hauetan, zirt edo zart egin behar izan dute eragile hauek guztiak, bidea argitu duten curriculum dekretuen zirriborroak aurkeztu baitizkigute. Gaur arte eragile guztien babesa omen zuen ekimenak bi bidai lagun ditu soilik: Kristau Eskola eta Ikastolak. Esanguratsua eta argigarria guztiz. **HEZIBERRIren abiapuntua ez da bi abiaduratako hezkuntza sistema honi irtenbidea bilatzea, ekitatea eta aukera berdinatsuna bermatzea. Heziberriren abiapuntua sare pribaturako finantziaketa eredu berri bat ezartzea da, lehiakortasunean oinarritutako bikaintasuna lortzea eta ikastetxeen autonomiaren izenean eredu baztertzailek egonkortzea.**

Steilasek ez du zalantzarik, garbi dugu balizko hezkuntza lege batek zein baldintza bete behar dituen onargarria izango bada. Gure hezkuntza sistemak gabezia eta erronka asko ditu: indartu eta prestigiatu beharreko eredu publiko bat, gainditu beharreko eredu sistema bat, lortu beharreko sistema ekitatibo bat, bermatu beharreko aukera berdintasuna... Hauek guztiak Hezkuntza Lege berri baterako abiapuntu direnean, Steilas bertan egongo da. Bitartean aurrean izango gaituzte, guztiz bidegabeak izaten ari diren proposamenen aurrean, tinko.

Irakaskuntzan hauteskundeak ditugu aurten, eta asko dugu jokoan: langileon lan baldintzak eta eskola publikoaren duintasuna. Steilasen jarrera bi eremu hauetan gardena da, zalantza izpirik gabekoa. Publikoa baita ardatz guretzat, publikoa helburu. •

EAEko aurrekontuak 2015: uriartek amore eman dio murrizketak kudeatzeari

Eusko Jaurlaritzaren 2015erako aurrekontu proiektua Madrilek eta Europar Batasunak finkaturiko konpromiso ekonomikoek mugatuta jaio da: zorraren ordainketa (2014an baino 174 milioi. gehiago) eta defizit publikoaren murriztea (%1etik 0,7ra). Berriro ere, hezkuntzarako gastua beherantz.

Uriarte se resigna a gestionar recortes

La consejera Uriarte se ha resignado a gestionar los recortes que heredó o ha venido imponiendo para cuadrar las cuentas. 26,4 millones de € más que se van en el pago de la cuarta parte de la paga extra que nos robaron y en el aumento de IPC. Por eso, el gasto real en educación vuelve a bajar, se tome el indicador que se tome (en relación al presupuesto general, al PIB...). Se precisarían 350 millones de € más, tan solo para alcanzar los niveles de gasto de 2009. Es difícil prestigiar la labor docente -uno de los objetivos del Departamento- congelando por quinto año unos salarios recortados en 2009 y que acumulan un 20% de poder adquisitivo. Frente a los problemas de siempre (falta de recursos) nos plantean soluciones imaginativas como "Eskolan Ekiten", que va a dar acceso a nuestros centros a personal contratado por la Fundación privada de Botín, para "labores de apoyo".

Joan den Abenduaren 23an egindako plenoan onartu ziren 2015eko aurrekontuak. EAJ eta PSEko hainbat parlamentariri esker, beharrei erantzungo ez dien aurrekontu proiektuak aurrera egingo du.

Sailak hezkuntzarako dituen hamar programen gastu osorako 26,4 milioi € gehiago badaude ere, 13,4 2012an galdutako aparteko ordainsariaren laurdena ordaintzeko erabiliko dira. Beraz, igoera KPIaren inpaktuaren eraginez, ezerezean gelditu zaigu. Edozein aldagairi helduta ere, iaz baino gutxiago gastatuko da hezkuntzan:

- Aurrekontu orokorrean igoera 4,15koa den bitartean Hezkuntzakoa % 0,8 baino ez da haziko. Zorraren ordainketa ezin da aitzakia izan, berau kontuan izan gabe, aurrekontu orokorrak %2,65eko igoera duelako.
- Hezkuntzara doan gastua iaz aurrekontu orokorraren %24,8 bazen, 2015ean %24,1 izango da.
- BPGa erreferentzia hartuta, hezkuntza %4,01 izatetik %3,9-era jaitsiko da, gomendagarria den %6-tik oso urrun.

2009. urtetik Hezkuntza gastuaren jaitsiera etengabea izan da. 2015ean 350 milioi € gehiago beharko lirateke gastua 2009koarekin berdintzeko. Izan ere, azken bost urteetan izandako murrizketak kontsolidatzen ditu aurrekontuetan: lan baldintzetan, eraikuntzetan, prestakuntzan, behar berezietan... Uriartek murrizketak kudeatzen ikasi duela erakutsi digu.

Zaila da 2009an murriztu ziren soldatak, bost urtez jarraian izoztuz irakasle funtzionarioari prestigioa ematea, azken hau Sailburuaren helburuetako bat izanik ere. Dagoeneko % 20ko galera dugu gure erosahalmenean; ordezkapenei dagozkienez, 2013an ezarritako %30eko murrizketekin jarraitzen dugu, ehunka lanpostu galduz...

Egoera honetan, Hezkuntza Sailak aurten, ikasturtea hasteko 4.000 ordezko behar izan direnean, lau haizeetara saldu nahi izan du 275 plazetako EPE-a. Lanpostu bakoitza, 3.135 euro kostako da, guztira 862.000. Publizitate kanpaina garestia, alajaina.

Halere, Diru-partida berririk ere bada, Heziberriren bidez LOMCEko currikulumak ezartzeko, edota "Eskola Ekiten" proiektua sustatzekoa (240.00 €koa). Egitasmo hori, egun geldirik dago **steilas**en salaketa baten ondorioz, hezkuntza sistema publikoa pribatizatzeko beste urrats bat ekar dezake: gure ikastetxeetan lanpostu aldetik dauden beharrak ohiko bidetik asetu beharrean (ordezkapenen zerrendena, hain zuzen ere) Botin Fundazio Pribatuak egoera prekarioan kontratatutako hezitzaileak sartuko dituzte hainbat gelatan. •

Sindikalismoa eta jendartea

Klase-sindikatuak ez dira inoiz izan boteretsuen gustokoak. Hausnartu behar dugu azken urteotan sindikalismoak jasotzen dituen kritikak, nahiz eta batzutan justifikatuak izan, noren mesedetan diren.



Gizarte baten demokrazia eta askatasun mailarekin doa bertan dagoen sindikalismo mota.

Alde batetik sindikatuen pluralismoa eta independentzia azter dezakegu: Francoren Espainian, Alemania nazian bezala, "sindikato" bakarra zegoen, boterearen egituraren barruan.

Bestetik, langileen afiliazio portzentaiak oso ezberdinak dira: Eskandinavian, %50-%80 artekoa da. Espainian %20ra ez da heltzen. Arabia Saudiarrean, ez dakigu: ilegalak dira.

Azter daiteke ere sindikatuen presentzia enpresen barruan: Alemanian administrazio kontseiluetan daude, besteetan lan hitzarmenak negozia ditzakete. Colombian, adibidez, sindikalista izateak zure lana eta bizitza arriskuan jarzea suposatzen du.

Medioetan maiz agertzen dira sindikatu eta sindikalista batzuen maltzurkeriak: estafak, iruzurrak, norbere onurarako egindako tranpak... Objetiboki handiagoak izan arren, askoz gutxiago agertzen dira patronalarenak, baina ez ahaztu CEOEko burua (Díaz Ferrán) epaitu eta gartzelaratu dutela, bere enpresa guztiak puskatu ondoren. Ulergarria da modu desberdinez tratatzea: medioak zeinen eskuetan dauden egiaztatzea besterik ez dago.

"Modan" jarri da ere manifestariak eta grebalariak (haien artean sindikalista asko) judizialki jazartzea, epaiketara eramatea, isunak ipintzea edota gartzelako zigorrak ezartzea langileen eskubideen defentsan egin dituzten ekintzengatik. Confebask sindikatuen papera zein izan behar den esatera ausartzen da, horrela patronal handiaren papera zein den agerian uzten...

"Qui bono?" (nori datorkio ondo?) latinezko esamoldea da. Adierazten du zerbaiten errua edo jatorria aurkitzeko garrantzitsua dela bilatzea. Gure kasuan, sindikalismoaren ahuleziak nori egiten dio mesede?

"Krisialdi" honetan pairatu ditugun erasoen artean, batzuk zuzenean joan dira sindikatuen rola gutxitzeko norabidean. Lan erreformarekin, adibidez, langileen ordezkariek nekez lortutako akordioak bertan behera gera daitezke ultraaktibitatea dela medio.

Begi bistakoa da funtzionarioon (karrerakoak eta bitartekoak) lan akordioak gero eta balio gutxiago duela: azken biak gutxiengoan sinatuta, gobernuak berak ere ez du adostutakoa betetzen eta, 2 urtez iraungi eta gero, berriztatzeko asmorik ez dutela botatzen digute, inolako lotsarik gabe.

Beraz, argi dago nork duen interesa sindikalismoaren irudia kaltetzeko: kapitalismoak berak, patronaletan pertsonifikatuta eta, funtzio publikoaren kasuan, administrazioarekin identifikatuta.•

El sindicalismo de clase nunca ha sido del gusto de los poderosos. Su pluralidad e independencia, el grado de implantación entre los y las trabajadoras y su participación en la vida laboral y social son indicadores de salud democrática. Los grandes beneficiarios de los ataques a los sindicatos (presión mediática, juicios y condenas a manifestantes, dudas sobre su papel en el mundo laboral, amenazas de ilegalización,...) son el capital y la clase empresarial (aliados con la administración), a quienes la debilidad del movimiento sindical les facilita enormemente la vida.

EPE datorrela!

Ezagutu behar dituzun hainbat puntu EPE honi buruz

(Datu asko otsailean argitaratuko den deialdiak alda ditzake)

1. Magisteritza diplomatura edo gradua duten guztiek (eta haiek soilik) eman ahal dute izena.

2. Edozein espezialitatekoa izanda, edozein espezialitatetan aurkez daiteke. Baita bat baino gehiagotan.

3. Plaza guztiak euskarakoak izango dira. Beraz, PL2, EGA edo HEO-ko Gaitasuna behar da. Bestela, martxoan antolatuko den euskara proba gainditu behar da.

4. Inor ez dago behartuta parte hartzera. 2006 arte, interino egonkorrak aurkeztu behar ziren egonkortasuna mantentzeko.

5. 2014ko abenduan eta 2015eko urtarrilean Lanpostu Eskaintzak egingo dira, BAINA EZ deialdia.

6. 2015eko otsailean deialdia argitaratuko da. Bertan zehaztuko da EPEren prozesua: noiz, zer, nortzuk, nola eta abar.

7. Lehiaketa fasean balio duten merituak: irakaskuntzako esperientzia, karrerako nota, prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak, unibertsitate tituluak, HEOko eta beste Goi Mailako Titulu batzuk, argitalpenak...

8. Oposizio fasean hiru atal daude:

- A atala: gaitegiari buruzko proba eta kasu praktikoa. 2 ordukoa. Ekainean.
- B1 atala: Programazio Didaktiko baten aurkezpena (martxoan?) eta defentsa (ekainean).
- B2 atala: Unitate Didaktiko baten prestaketa eta defentsa (ekainean).

9. Hizkuntz atzerritarren espezialitateetan hizkuntza hori erabili behar da. Besteetan, euskara edo gaztelera.

10. Oposizio fasea gainditzen dutenei aukera emango zaie zerrendetan sartzeko aurkeztutako espezialitatean.

11. EPErekin batera, karrerako funtzionarioek soilik, espezialitate berriak lortzeko prozesua izan lezakete.

12. EPE prestatzeko material interesgarriak:

- Deialdiak (2015ekoa, baina bitartean 2012koa).
- Gaiak: Lehen Hezkuntza espezialitatean 31 gai dira, beste guztietan 25.
- Gai garatuak.
- Kasu praktikoak.
- Kurrikulumak: indarrean daudenak edo egongo direnak. EHAA.

13. Zer lortzen du Hezkuntza Sailak EPErekin:

- Irakasleen ezegonkortasuna igotzea: aurten 200 ezegonkor gehiago; azken hiru urteetan, 1.200.
- 275 irakasleri lanpostu finkoa ematea.
- 800.000 euro inguru gastatzea.
- Ordezko, bestelako irakasle eta ikastetxe askoren bizitza konplikatzea.
- Baina batez ere: kriston propaganda egitea medioetan: Cristina Uriarte, langabetuen eta zerbitzu publikoen salbatzailea.

14. Zer lor dezake irakasle batek EPEn aurkeztearekin:

- Lan finko bat, baldin eta merituak, prestakuntza eta zorte nahikorik badauka.
- Aurrekoa ez bada betetzen, EPE baten eskarmentua.
- Probak gainditzekotan, zerrendetan sartzea.
- Edozein kasutan, oso lan handia.

15. **steilas**-ek bi hitzaldi antolatzen ditu hiru herrialdeetan:

- Abenduan, EPEren antolaketa eta prestakuntzaz, unean genituen datuekin.
- Otsailean, deialdi ostean, beste bat programazio eta unitate didaktikoei buruz.
- Hitzaldietan eta egoitzetan zure esku izango ditugu lagungarri suertatu ahal zaizuen materialak (12. puntuan daudenak).

Gazteak eta bortizkeria: Hezidetza da bidea

Pasa den azaroaren 25ean, emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna ospatu zen. Ohikoa denez sindikatuan formakuntza saio bat antolatu genuen liberatuentzat eta egun hori gurekin konpartitu nahi duten afiliatuentzat.

Oraingoan, EHUko lankidea den Eli Usategik egindako "Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao" lanaren ondorioak aurkeztu zizkigun.

Lan hau, Bilboko udalak subentzionatuta, EHUren eskutik egin zen LHko hirugarren ziklotik hasita unibertsitateko 1.maila arteko ikasleek parte hartu zutelarik.

Oso kezkagarriak izan ziren ateratako ondorioak eta nahiz eta lana bakarrik Bilbon mugatuta egon, jakin badakigu, horrela adierazten baitute azkeneko urtetan egindako ikerketa desberdinek, emaitza antzerakoak izango zirela Euskal Herriko edozein aldetan.

Lanak agerian jartzen du egungo gazteek dituzten bizipen afektibo sexualak generoaz oso baldintzatuta daudela. Beren harremanak maskulinitate eta femenitate eredu tradiziozaleetan oinarrituta jarraitzen dute non mutilek posizio hegemonikoa mantentzen jarraitzen duten. Horrek desberdintasun harremanak sortzen ditu eta modu batean edo bestean indarkeria matxista zer den ulertzeko trabak jartzen ditu. Gazteak oraindik "benetako gizona" eta "neska zintzoa"ren irudiarekin hazten dira.

Argi gelditzen zaigu gazteek barneratzen dituzten ereduak ez direla gehiegi aldatu eta horrek zalantzan jartzen ditu eskolaren hezkidetzaile funtzioa, zein familiaren papera eta jakina komunikabideek jokatzen dutena. Eskola instituzio berdintasunezkoena izan arren, jendartean existitzen diren genero estereotipoak transmititzen jarraitzen du. Ikasleak bizitza laboralerako prestatzen dituen heinean "maskulinoak" diren rol tradizionalei eutsi egiten die "feminitatea"rekin lotuta daudenak isilean gordez eta aintzat ez hartuz. Rol hauekin apurtzea ezinbestekoa da berdintasuna bermatzen duen jendarte berria eraiki nahi badugu.

Hori dela eta, **steilas**ek benetan hezkidetzailea den eskola baten alde borrokatzen jarraituko du.•

Hezkidetza da bidea.
Euskal eskola publiko eta laikoa

El pasado 25 de noviembre día internacional contra la violencia machista, como venimos haciendo los últimos años, organizamos una sesión de formación para liberadas y liberados y para aquellas personas de la afiliación que compartieron el día con nosotras. En esta ocasión, Eli Usategui, compañera de la UPV/EHU, nos presentó las conclusiones de su trabajo "Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao". Conclusiones muy preocupantes que vienen a demostrar que los y las jóvenes siguen respondiendo a patrones sociales de masculinidad y feminidad que implican relaciones de desigualdad social y sexual en las que los varones siguen poseyendo la posición hegemónica y pueden perpetuar violencia y abuso. Esto nos hace poner en tela de juicio la labor coeducadora de la escuela mixta y los modelos de género que sigue interiorizando nuestro alumnado.

Haurdunaldia, amatasuna,

Lan hitzarmeneko

Haurdun

Haurdun dagoen emakumeak lanean aritzeko arazoak izan ezkero.

Baja Mutuatik.
Haurdunaldi ona baina lanpostua kaltegarria.

Baja Gizarte Segurantzatik. Haurdunaldian arazoak. edo haurdunaldi arriskutsua

Delegaritzako prebentzio zerbitzutik tramitatzen da.
Mutualiatik lanpostuaren azterketa egiten da prozesuak aste batzuk irauten ditu eta bitartean ezin da egon osakidetzako bajarekin.
Lortuz gero, %100-a kobratzen da
Ez dago inspekziorik.

Osakidetzatik baja hartuz gero, familiako medikuak ematen du, **"gaixotasun arrunta" bezala kontsideratua da.** %100a kobratu ahal izateko, delegaritzan eskaera egin behar da.

Inspekzioak

Eusko Jaurlaritzako prebentzio zerbitzutik. Informatiboa.

Gizarte Segurantzatik, alta medikua hartzera behartu dezakete.

Edozein kasutan, umea jaiotzean ALTA eskatu behar da amatasun litzentzia hasteko.

Hemendik aurrera zer?

Umea jaio ondoren

Amatasun lizentzia

Gizarte segurantzatik
16 aste Kobratzen da
Eta delegaritzak beste bi aste.
16 asteko baimena da,
Amak derrigor lehenengo
6 asteak hartu behar
ditu, hortik aurrera aitari
pasa ahal dizkio…
Gure lan hitzarmenean
2 aste gehiago ditugu.
Bikiak izanez gero.
beste 2 aste gehiago.

Edoskitzea

Amatasun lizentzia bukatu ondoren lanera bueltatzeko baldintzarekin bakarrik lortzen da edoskitze lizentzia.
Aitari pasa ahal zaio.

Eszedentzia/
Suspensión Transitoria

Behin bakarrik eskatu ahal da ume bakoitzagatik
Eta gehienez ere 3 urte betetzen dituen arte

Jaiotako ume bakoitzagatik egunean ordu bat, urte bete izan arte. **Bi mota: metatua edo metatu gabea.**

Orduak metatzeko aukerak
lanaldiaren arabera: lanaldi osoan 24 lan egun.
2/3eko lanaldiarekin 36 lan egun.
1/2an bueltatu ezkero 48 lan egun.

edoskitzea eta eszedentzia

40. artikulua

Erditzeko unea

Gizarte segurantzako 16 asteak kobratzeko eskubidea lortzeko aukerak

- Kontratupean egotea umea jaiotzen den egunean
- Kontratupean egonda, gizarte segurantzatik baja medikuan egon eta hau ez etetea umea jaoiotzen den egunerarte.
- Umea jaiotzen den egunean Langabezitik kobratzen egotea.
- Mutuatik bazaude bajan, kontuz kontratua bukatu aurretik gizarte segurantzako medikuarekin hartu behar da baja.

Egoera bereziak

6.astetik aurrea lana eskaini ezkero:

Meritar por maternidad 16. asterarte, umea zaintzen geratu puntuak egiten. Ordezkapena bada ez dizute lanposturik gordetzen. Bakantea bada bai.

Eskainitako lanpostura joatea erabaki ezkero, amatsuneko asteak aitari pasa ahal zaizkio.

Suspension Transitoria, Umeak 3 urte bete harte. Diru laguntzarik ez.

Kontratuko egunetan puntuak egiten dira.

Edoskitzea. Lanera bueltatu ezkero egunean ordu bat har dezake umeak urte bete izan arte. Bakantea bana Metatzeko aukera du.

Informazio gehiago gure egoitzetan

Ibiltariak: mugagabeko borondatea

Gaur egun Hezkuntza Sailean ibiltari lana egiteko, kategoria bakoitzari dagokion titulu akademikoa eta hizkuntza eskakizunaz aparte, mugagabeko borondatea adieraztea ezinbesteko baldintza da. Behintzat, hori da Langileen Zuzendaritzatik, behin eta berriz, ibiltarioi eskatzen digutena gure lan baldintzen okertzea onartzeko, borondatea.

Ez da gauza berria Administrazioak gure lan-baldintzak okertzen dituenean, langileoi hori onartzeko borondatea eskatzen digunik. Ezta aldaketa horren kontra azaltzen garenean, borondate eza daukagula leporatzen digunik ere.

Ibiltariok gure aldetik jartzen duguna:

- **Kotxe propioa erabiltzea eta joan-etorrietarako dirua aurreratzea.** Gehienok (behintzat, herriz herri gabiltzanok) egiten dugu. Horren ondorioz, ikastetxe gehiagotatik pasa gaitezke egunero.

Administrazioak hau dena saritu beharrean:

- Gipuzkoako Berritzegune batzuetan, eguneroko joan-etorriak indemnizatzeko ere arazoak jartzen dituzte.

Azken hau, administrazioko teknikari baten aldebakarreko erabakia bazen ere, irregulartasun hori bideratzeak negoziazio luzeak behar izan ditu. Eta, azkenean konpontzea lortu dugun arren, horren "konponketan", langileok ere galtzaile atera gara dagokigun diru kopuru zati bat ez dugulako berreskuratuko.

Arreta zuzeneko ordu gehiago izateko ere, gure koordinazio orduei behar duten garrantzia kendu eta asteko ordutegia luzatzen saiatzen ari dira. Eta horretarako ere, gure aldetik borondatea adieraztea eskatuko digute, baina **oso argi esaten eta esango diegu borondateak mugak dituela eta gureak aspalditik gainditu ditugula.**

Nola adierazi borondatea inposatzen dizkiguten aldebakarreko erabakien aurrean? Edo, egin behar dugun lanaren kostea, gero eta gehiago, gure gain jartzen dutela ikusten dugunean?•

La Administración, reiteradamente, nos pide que aceptemos los cambios que realiza en nuestras condiciones de trabajo. Nos pide voluntad para ello. Pero, ¿cómo podemos aceptar cambios impuestos de manera unilateral y que conllevan un empeoramiento de las condiciones haciendo que toda la carga del trabajo que realizamos caiga sobre nosotras/os? No computar el primer desplazamiento para tener más horas de atención directa, no aplicar la normativa de indemnización de desplazamientos perdiendo el dinero adelantado, hacer menos coordinación... De verdad, ¿creen que podemos mostrar voluntad para aceptar esto?

HEZKUNTZA BEREZIKO LANGILE ETA IRAKASLE LABORALAK

Negoziazioak



Hezkuntza bereziko langile eta irakasle laboralak:

Fisioterapeutak

Zeinu hizkuntzako interpreteak

Hezkuntza laguntzako espezialistak

Terapeuta okupazionalak



steilasen helburua da:

Sektorerako onak izango diren akordioak lortzea.

Horretarako hezkuntza bereziko langile eta irakasle laboralak eta hezkuntza departamentukoen arteko jarrerak elkartzeko puntua bilatu behar da.

GU HORRETAN GAUDE.

steilas

Euskarazko irakaskuntza lau haizetara

Laster posible izango omen da Nafarroa osoan D ereduan eskaintza publikoa egitea. Eremu "ez euskaldun"eko 6 ikastolak (2006tik itunduta) beldur dira ea "euskararen monopolioa" galduko duten, eta oztopoak jartzen saiatu dira. Ikasleek eskola publikoan, euskaraz eta euren herrian ikasteko eskubidea dute. **steilas** horren alde agertu da publikoki.

Euskararen Legea 1986ko abenduaren 15ean Nafarroako Parlamentuan onartu zenetik, herrialdea hiru eremu linguistikoetan banatuta dago; eremu euskalduna (mendialdea), eremu mistoa (Iruñerria, Lizarraldea, Salazar eta Erronkariko bailarak) eta eremu ez euskalduna (Erribera eta Tafallaldea). Banaketa horren arabera eremu ez euskaldunean eskola publikoan ez da euskarazko irakaskuntza eskaintzen (D eredua) eta gurasoek duten aukera bakarra haien seme-alabak Ikastoletan matrikulatzea da.

Diskrimazio egoera hau gaur egun arte iristea posible egin dutenak UPN eta PSN izan dira, haien bozekin legea indarrean mantentzea lortu baitute. Azken hilabeteetan, berriz, PSNk bere jarrera aldatu du eta legean aldaketa bat onartzeko asmoa azaldu du, euskarazko irakaskuntza Nafarroako eskola publiko guztietan eskaintzea bermatuko duena, hain zuzen ere.

Orain etorriko bide den aldaketak eragina izan du, orobat, jendartearen sektore ugaritan. Barcinak ohartarazi du "*estatu-auzia dela*" euskarari buruzkoa; Iribasek, berriz, guztiz larriturik, dio "eremu ez-euskalduneko" ikastolek arazo gehiago izan ditzaketela. Eta ulergarria da ikastolek ezbaiak izatea lurralde berri honen aurrean. Batetik, ontzat ematen dute euskarari buruzko legearen aldaketa; bestetik, eskaintza ikastetxe publiko guztietara zabalduz gero, kezkatsu daude ikastolek izan dezaketen etorkizunaren gainean. Zalantza bera agertu zen garai batean "eremu mistoko" herri batzuetan. Baina horra garbi dagoena: familia askoren borrokaren fruitu izan zen Iruñeko Udal Ikastola ireki zenetik (1977an), euskarazko sare publikoa hazi eta hazi egin da Nafarroan, euskarazko irakaskuntzaren buru izateraino. Garai batean, erruz eztabaidatu zen euskarazko lerroak zabaltzea gaztelaniazkoen ondoan ikastetxe publikoetan. Ordea, irakasleen jardun bikainak eta familien ahaleginak ezin ukatuzko arrakasta bihurtu dute Nafarroako ikastetxe publikoen D eredua.

Une honetan, egoki jokatzen asmatu behar dugu lege-aldaketak eskaintzen digun aukera baliatuz, euskara Nafarroako txoko guztietaraino irits dadin. Gaur egun, eremu ez-euskaldunean, ikastolak 6 herritan besterik ez daude, eta haien eskaintzak derrigorrezko hezkuntza hartzen du bakarrik. Lerro berriak ireki behar dira ikastetxe publikoetan, ikasle kopuru txikiarekin bada ere, ahalik eta herri gehienetan, jendeak errepidean harat-honat ibili beharrik izan ez dezan, eta eskaintza zabaldu derrigorrezko hezkuntzatik goragoko mailetara; familiak animatu behar dira, haien zalantzak uxatu, babes-sareak sortu, eskolaz kanpoko ekitaldiak antolatzen lagundu... Zorrotz begiratuko dugu, ahal dugun neurrian, D ereduko eskaintza publikoa garbia izan dadin eta familiek hautatu ahal izan dezaten inolako eragozpenik izan gabe.

La próxima posibilidad legal de ofertar modelo D en los centros públicos de toda Navarra desafía el monopolio del euskara que tenían las seis ikastolas (concertadas desde 2006) de la zona "no euskaldun". **steilas** defiende el derecho de todas las familias a una enseñanza pública, en euskara, y sin desplazamientos innecesarios, tal y como ya sucede en las zonas euskaldun y mixta.

Parlamentuko taldeek garbi agertu beharko diote nafar jendarteari hezkuntza publikoarekiko konpromisoa, eta erabaki beharko dute nola eta zer helbururekin txertatzen dituzten Ikastolen Federazioak helarazi dizkien eskaerak (guztiak edo haietakoren bat), eskaera horiekin ados baldin badaude. **steilas** aurka agertuko da baldin eta kooperatiba horien interesak lehenesten badira familiek beren herrian D eredua izateko daukaten eskubide legitimoaren gainetik.

steilasek bere jarrera zalantza izpirik gabe sistema publikoaren alde agertzen du, hezkuntza sistema ardaztu behar duen eskola publikoaren alde eta euskararen arloan sareen dikotomia gainditzearen alde. Euskarari merezi duen duintasuna eman behar diogu denon artean, inork ez dezan baliatu gizartea zatitzeko tresna gisara D ereduko irakasleen lana edo haien klaseetan erabiltzen diren materialak susmopean jarriz. Mezu positiboa zabaldu behar dugu, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak jakitearen garrantzia azpimarratuz gizartea kohesionatzen laguntzeko xedearekin. Testuinguru honetan, hau une egokia izan liteke ikastolei sare publikoan txertatzeko aukera emateko, EAEn 80ko hamarkadan egin zen bezalaxe, ikastetxe horietan lanean aritu diren irakasleei beren lanpostuetan egonkortasuna eskainiz.

Euskararen legean sartuko diren aldaketak garrantzitsuak dira, baina ez dira inondik inora aski. Bada garaia behin betiko alde batera uzteko eremukako lurralde-banaketa, bada garaia hizkuntza politiko integral bat izateko, bada garaia Nafarroako Gobernuak ikasle guztiei bermatzeko bertako bi hizkuntzen ezagupena.•

Mozala Legeari ez

Madrilgo kongresuan Mozala Legea onetsi berri du PPk, eta UPN-k, nola ez, bat egin du. Protesta kriminalizatzea helburu duen legea indarrean sartuko da epe laburrean. Sektore askok – baita Europako Erakundeek ere- irmoki salatu dugu lege hau, mobilizazioak isiltzeko, errepresioa handitzeko, eta adierazpen askatasuna zapuzteko egina baitago.



Errepresioa nabarmen indartuko du:

- Poliziaren hitza egiaren pare jarriko du, eta horren arabera polizia epaile eta parte da. Poliziari ezin izanen zaio inolako grabaziorik egin, ezta kazetariek ere. Neurri honek poliziaren gehiegikeriari sostengua ematen dio.

Oraingo honetan ere ez gaituzte isilduko

kalea denona da

- Isunen kopurua handitu eginen da, eta oso larriak izanen dira (30.000 eurotik goitiko isuna) Senatu, Kongresu edo erakunde autonomoen inguruan egindako manifestazioak, banketxeak edo bestelako eraikinak okupatzea, autoritateari erresistentzia edo desobedientzia egitea, eta etxegabetze bat geldiaraztea. Gainera, helegitea aurkeztu ahal izateko isuna ordaindu beharko da, eta horren tasak ere bai.

- Gosete, gerrate eta poliziatik ihesean Estatu Espainolean sartzen diren etorkinak harrapatzen dituzten momentuan beren jaioterrira kanporatzeko aukera ahalbidetzen du. Marokoko poliziaren esku utziko dituzte etorkin hauek eta ez dute asilo politiko eskatzeko aukerarik izanen, besteak beste. Honek nazioarteko legedia urratzen du.

- Kalea erabiltzeko posibilitatea urriagoa izanen da. Alkohola edatea, bestelako drogak kontsumitzea, top manta... ilegala izanen dira.

Errepresioa ez da berria gure herrian. Nafarroan, esaterako, isun ugari ezarri dituzte. 2012 eta 2014 urte bitartean 100.000 euro baino gehiagoko isunak jarri dituzte. Errepresio mota honetan Nafarroa aitzindaria da eta isun kopuru handien jaso duen Erkidegoa da. KALEA DENONA DA! taldeak (**steilas** partaidea da) erantzun komuna bideratzen du (kaleadenona@gmail.com)

Oraingo honetan ere ez gaituzte isilduko. Mozala Legearen kontra agertuko gara kalean, ikastetxeetan... eta dei egiten diogu jendarteari askatasunaren aldeko aldarrikapenekin bat egiteko eta Euskal Herriko edozein bazterretan errepresioaren kontrako mobilizazioetan parte hartzeko.•

Zer dira TTIP eta TISA hitzarmenak

Atlantikoaren bi aldeetako ekonomia erraldoien helburua da transnazionalen arauak gobernuen legeen gain jartzea. Horretarako TTIP sortu dute. TISAk zerbitzu publikoak negozio bilakatu nahi du.

Munduko merkataritzaren herena betetzen duten bi ekonomiek, Europar Batasunak eta Amerikatako Estatu Batuek, korporazio transnazionalei eman nahi dizkiete eskumen guztiak. Horretarako TTIP hitzarmena adostu nahi dute. Itun honen erregulazioak Europako eta barneko maila guztietako gobernuen lege eta arautegien gain jarriko lirateke.

Munduko Merkataritza Erakundea (MME) 1980ko hamarkadan eratu zen eta xede nagusia merkataritza eta inbertsioak liberalizatzea izan da. MME-k Merkataritza Libreko Hitzarmenak (MLH) sortu eta bultzatu ditu, haien artean TTIP, Atlantikoaren bi aldeetan, korporazio handiei babesa emanez politika publikoen kalterako: erakunde hau betidanik aritu da korporazioei alfonbra gorria jartzen ahalik eta etekin ekonomiko handiena lortzeko, hori bai, merkataritza librearen izenean eta zerbitzu publikoetan sartu ahal izateko existitzen diren erregulazioak deuseztuz.

TTIP hitzarmenaren bultzatzailerik amorratuenak, 2013ko Ekainean G8an ospatu zen bilkuran, AEBko presidentea Barack Obama eta EBko Batzordeko presidentea Manuel Barroso izan ziren. Gure herriko hainbat partidu politikok, PP, PSOE, UPyD, CIU eta EAJ besteak beste, TTIP hitzarmenari babesa eman diote eta Eusko Jaurlaritzako Arantza Tapia andreak ere TTIPen aldeko adierazpenak egin ditu, argi utziz EAJk zerbitzu publikoen suntsitzaileak diren politika neoliberalak maite dituela.

Arestian aipatutakoaren helbururik txarrenetarikoak hauexek ditugu: kapital transnazionalari ateak zabaltzea eta Atlantikoaren alde bietan merkatuak erregulaziorik ez izatea. Lehenengo eta behin "harmonizazio erregulatzailea" lortu, hots, gaur ezagutzen ditugun mugazergak deuseztatu, baina benetan paretik kendu nahi dituztenak bestelako oztopoak dira: mozkinei traba handiena egiten dietenak, hezkuntza, jendartea, kultura, bioaniztasuna, langileen arautegi laborala eta sindikala, osasuna, lan eta gizarte esparruetan eragina duten babes-neurriak, ura, ingurugiroa etab. Akordioaren bitartez Europako babes-neurriak AEBko mailetara jaitsiko dira, harmonizatzeko bidea hori baita eta arloren baten Europako standarrak AEB baino baxuagoak bailira, hau ere harmonizatuko lukete beti ere baxuenarekin berdinduz.

Tamalez, hau gutxi balitz gure Hezkuntzak beste etsai erraldoi bat ere badu: TISA, Zerbitzuen Merkataritza Hitzarmena. Hitzarmen hau paraleloki negoziatzen ari dira Ginebran 50 estatu. Eta helburua zerbitzu publikoen kudeaketa bereganatzea da, negozio bilakatuz eta beraien mekanismoak eta arauak estatuek ezartzen dituzten eskubide guztien gainean kokatuz.

Bi akordioak erabateko sekretupean negoziatzen ari dira nazio-gaindiko elite politikoa eta enpresariak. Erabaki-gunea herritarren-gandik urrun dago, demokraziaren kontroletatik kanpo. Zergatik ote? Argi dago, populazioa jakinaren gainean jarriz TTIPak eta TISAk ezetz borobila jasoko luketelako.•

TTIP es un acuerdo entre EE. UU. y la Unión Europea que pretende colocar las reglas comerciales por encima de las legislaciones de cualquier nivel, desregularizando sectores privados y públicos (de estos se ocupa especialmente el TISA). De esta forma, los controles gubernamentales y populares actuales, aunque insuficientes, perderían gran parte de su poder y la situación actual empeoraría en cuanto se refiere a derechos laborales, ciudadanos, ecológicos y, en general, democráticos.

Mexiko: gobernuaren gerra zikina

Irailean, Mexikoko Guerrero Estatuko Ayotzinapa herrian, polizia munizipalak magisteritzako 43 ikasle desagerrarazi eta beste lau tiroz zauritu zituen. Magisteritza irakasten duten landa eremuko eskola profesionalek hezkuntza kritikoa eta eraikitzailea eskaintzen dutenez Estatuak haien kontrako jarrera oldarkorra izan du azken 40 urteetan.

Mexikotik datozen berriak azkenaldian ez dira batere positiboak. Alde batetik egunero agertzen dira emakumeen hilotzez betetako fosak eta bestetik narkotrafikoaren gerrarekin lotutako hilketak. Azken berria magisteritzako 43 ikasleren desagerpena izan da. Magisteritzako ikasle hauek, iazko ekainean, Arturo Hernandez Carmona nekazarien ordezkariaren hilketa leporatu zioten Igualako alkateari. Aurten, ikasle hauek berriro ere, Igualako ustelkeria salatzeko kalera ateratzeko asmoa zuten. Hau dela eta, Igualako alkatea, eta batez ere bere emaztea, "lanean" hasi ziren magisteritzako ikasle hauek isilarazteko.

Magisteritzako ikasle hauek irailaren 26ko gauean atxilotu zituzten Igualako eta Coculako poliziek. Operazioa oso gogor hasi zen, autoetan sartuta kuarteletara eraman zituzten. Kuarteletara ez ziren bizirik heldu ikasle guztiak, eta bizirik heldu zirenak Coculako sikarioen buruaren esku utzi zituzten.

Narkotrafikoarekin eta gerra zikinarekin lotuta dauden talde paramilitarrek ikasleei banan-banako itaunketa egin eta bakoitzari buruan tiro bat eman zioten, horrela 46 gorpu izan arte. Hilotz guztiak gasolinaz busti, pilo bat egin eta autoen gurpilekin batera sua eman zieten.

Azkenik gorpuen hondarrak plastikozko poltsetan sartuta errekara bota zituzten.

Igualan hildako magisteritzako ikasleentzat justizia eskatzeko asmoarekin azaroaren 20an gauzatutako mobilizazio egunak, inflexio puntu bat markatu du Mexikoko klase arteko borrokan. Egun hartan ikasle-greba egin zen 114 eskola eta unibertsitatetan, eta protesta ekintzak egin zituzten Errepublikako 32 estatuetatik 30ek. Ezaugarri nagusia masibotasuna izan zen. DFeko mobilizazioek sei ordu iraun zuten Zocalorantz atera zen manifestazioaren burutik azken manifestariak iritsi ziren arte. Baina herrialde osoko masa batasun erakustaldi honek, PRIren oinarri soziala zein higatuta dagoen agerian utzi du.

steilasek gertatzen ari diren hilketak gogor salatzen ditu eta Mexikoko gobernuari narkotrafikoaren kontrolagatik ezkutuan dagoen gerra zibila lehenbailehen geldiarazteko ere exigitzen dio.

La desaparición de 43 estudiantes en México y las declaraciones de sicarios que aseguran que los jóvenes fueron ejecutados, ponen en evidencia la gravedad de la infiltración del narcotráfico en las autoridades mexicanas. "Este crimen es uno de los más graves registrados en la historia contemporánea de México y América Latina"

Human Rights Watch.

Han hemenka irakurritakoak

Granadan 3 apaiz eta sekular bat sexu erasoengatik atxilotuta.

Berriro ere Granadako Gotzaitza hizpide, oraingoan sexu erasoengatik, gazte batek fiskaltzan eginiko salaketa baten ondorioz, egun batzuk beranduago beste pertsona batek ere hark esandakoa berretsi du. Beti bezala berriak medioetara salto egin ondoren, barkamena eskatu dute.

Dena den, gogora ekarri nahi ditugu, Granadako Goitzaiak berak orain dela denbora bat kalerartutako liburua "Cásate y sé sumisa" eta baita egin zituen adierazpen batzuk ere:

"Si la mujer aborta, el varón puede abusar de ella"

Jendilaje honekin nora goaz!!!!

REDACCION | 85901 lecturas

El asesinato de María Lage en Vigo, consecuencia de la feminización de las funciones militares y policiales

Tamaño del texto: + (mayor) / - (menor)

Una mujer policía (María Lage Carreira, de 36 años), asesinada en Vigo. La agente policial murió tras ser abatida a tiros por el atracador de una sucursal bancaria en Vigo, el también fallecido Enrique Lago Fariñas, alias 'el escayolista'. María Lage dijo al asaltante, antes de ser acribillada: "Cálmate, no pasa nada". Consecuencia de la feminización de las funciones militares y policiales. Uno se pregunta en qué cabeza cabe enviar a una mujer a tratar con un peligroso atracador.

Hoy, las mujeres quieren jugar a todo, vestirse con todos los disfraces posibles, ir de hombres por la vida, porque "ellas lo valen". La vida real no es un juego. Ahí está la prueba. ¿Qué hacía esa mujer con una pistola en la cadera jugando a policías en lugar de estar educando a uno o varios niños europeos? Respuesta: ponerse en peligro de muerte, hacerse matar por un asesino, que tal vez se lo habría pensado dos veces de haber tenido enfrente a dos hombres con pocas ganas de "dialogar" y "hacer pedagogía" a pie de calle con los criminales.

steilas

www.steilas.eus

Araba: Eulogio Serdán 5
01012 Gasteiz
945 14 11 04 945 14 43 02
araba@stee-eilas.org
UPV/EHU Elurreta
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 Gasteiz
945 01 33 97
stee-eilasa@ehu.es

Bizkaia: Nikolas Alkorta 3, lonja 13
Zabalburu
48003 Bilbo
944 10 02 98 944 10 13 60
bizkaia@stee-eilas.org
UPV/EHU Leioako Campusa
Gizarte Arloko Eraikina
48940 Leioa
94 601 52 87 94 601 24 34
lvzeilas@lg.ehu.es

Gipuzkoa: Basotxiki 30-34 atz.
20015 Donostia
943 46 60 00 943 45 36 27
gipuzkoa@stee-eilas.org
UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio Mª Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1
943 01 84 36 943 01 81 40
sczeilas@sl.ehu.es

Nafarroa Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 Iruñea
948 21 23 55 948 22 97 90
nafarroa@stee-eilas.org